

«Hona heltzean espektatiba denak
zapuzten zaizkie etorkinei»



ZIORTZA LLONA ETA
MOUNASSE NDIAYE
Muna komikiaren egilea
eta protagonista

hiruka

140. zenbakia

2018ko azaroaren 8tik 14ra arte



Euskaraldian jolasteko prest

Milaka lagunek jardungo dute rol-jolas batean azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euren hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Uribe Kostako Euskaraldiaren dinamizatzaileek azaldu dituzte joko horretan parte hartzeko gakoak.

SAN MARTIN JAIAK | 4

FESTAK ALGORTAKO HEZETASUNA AUZOAN

Azaroaren 9tik 11ra arte, San Martin jaiak ospatuko dituzte Algortako Hezetasuna auzoan. Dena prest daukate.

«BIZILAGUNAK» BAZKARIAK | 6-7

KULTURARTEKOTASUNA, MAHAI-GAINERA

Bertoko familia «autoktonoak» eta bertakotutako atzerriko familiak bazkaltzeko elkartuko dira azaroaren 11n, domekan, Getxon.

LEIOAKO BERTINTASUN-PLANA | 5

URTE-AKABURAKO ONARTU GURA DUTE

Herritarren partaidetzagaz, Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako IV. Toki Plana lantzen dihardu Udalak.

KIROLAK | 12

GETXOKO NAZIOARTEKO MENDIAREN XX. ASTEA

Itxas Argia mendi-taldeak 20. astea antolatuko du aurten, azaroaren 13tik. Mendi Tour zinema-ekimena ere izango da.

Elorri
OUTLET HANDIENERA
• Iparraldean •

XV. EDIZIOA

**STOCK
EUSKADI**

**B!
E!
C!** BILBAO
EXHIBITION
CENTRE

**Azaroak
9, 10 eta 11**
11:00etatik 21:00ak arte

ESKAINTZARIK ONENAK
LEHEN MAILAKO MARKAK
ZOKETAK: 3000€-TIK GORA

«Jolas gaitezen Euskaraldiko 11 eg

Milaka lagunek jardungo dute rol-jolas batean azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Zuriñe Agirregomezkorta (Leioa), Fredi Paia (Getxo), Iruñe Villaverde (Erandio) eta Peru Calabaza (Mankomunitatea) Euskaraldia prestatzen dabilta.

ÍÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Zer da Euskaraldia? ZURIÑE AGIRREGOMEZKORTA: Euskara sustatzeko ariketa soziala da, euskaraz berba egin eta ohiturak astintzeko, hamaika egunean egingo dena Euskal Herri osoan. FREDI PAIA: Euskaraldiak erantzun gura dio euskal komunitatean daukagun arazo bati: alde izugarria dagoela dakien jendekopurutik berba egiten duenera. Berbarako, Getxon % 8 da erabilera, dakitenen artean. Horri erantzun gura dio dinamikak. PERU CALABAZA: Bada ere eragile denak harremanetan ipini gura dituen jarduera bat: erakundeak, herritar-talde eragileak, elkarteak eta norbanakoak, bereziki.

Nola sortu da ekimena? Nork antolatu du? F. P.: Ekimenaren ideia dator orain dela hogeit bat urtetik Lasarte inguruan egiten den dinamika batetik. Han egitasmo bat sortu zen euskara-ohiturak aldatzeko. Gaur egungo bertsioaren antolatzaileak Topagunea [euskara-elkarteen federazioa] eta Eusko Jaurlaritza dira; euren arteko proposamen bat zabaldu zitzaion herriei, iaz.

Zergatik eskatzen duzue Euskaraldian parte hartzeko? IRUÑE VILLAVERDE: Ariketa horretan, zenbat eta gehiago izanda, orduan eta errazagoa izango delako bai pertsonak eta bai lekuak edo sustatzaileak identifikatzea. Parte-hartze handia bada, aukerak zabalduko dira.

Zer abantaila lortuko dute herritarrek? Z. A.: Identifikatu ahal izango dituzte euskaraz ulertzen duten pertsonak. Euskaraz berba egin gura dutenentzat errazagoa izango da.

P. C.: Aukera ona da euskararen erabilera norberaren gogoen arabera ipintzeko. Askotan beharrian legez bizitzen dugu, eta oso kontu ezberdinak dira gogoia eta beharrian. Aukera ona da norberaren gogoia piztu eta jendartean erabiltzeko, komunikazio-tresna eta jolas kolektibo modura. Garrantzitsua da jolas baten modura planteatzea, eta ez kanpaina ofizial baten modura. Jolas gaitezen euskaraz berba egitera! Ideia hori asko gustatzen zait. F. P.: Bai, rol-jolas bat da. Norbanakoak baino, komunitatea indartuko da hemen. Onura kolektiboa lortuko da, batez ere orain arte euskalgintzan inoiz ez dugulako ipini fokua erabilera bultzatzeko ekinbide batean. Hori da Euskaraldiaren abantaila nagusia. I. V.: Antzeko esperientziak egon dira Euskal Herrian; emaitza onak lortu dira horrelako ariketakaz.

Zelan aukeratzen dira ariketaren rolak? Z. A.: Hainbat arrazoi egon daitezke bata ala bestea izateko. Hasteko, ahobizi edo belarriprest izateko gutxienez euskara ulertu beharra dago. Gero, izan daiteke lotsagatik edo mila egoeragatik ahobizi ez izatea. Nire kasuan, berbarako, belarriprest izatea erabaki dut, zailtasunak aurreikusten ditudalako jokoa ondo egiteko, eta jokoa txarto egiten badugu indarra galtzen duelako.

Euskal Herrian 60.000 lagunek eman dute izena Euskaraldian, eta %80 ahobizi da. Zein da egoera gure eskualdean? F. P.: Proiektu hau kualitatiboa da, barne-alaketak bilatzen ditugu jendearengan, ihes egin behar dugu zenbakietatik eta erronka-ikuspegi horretatik. Ez dut oso ondo ulertu zertara dato-



Aste bi falta dira Euskaraldia has dadin; Agirregomezkorta (Leioa) eta Agirregomezkorta (Leioa).



Ahobizi

Ulertzen duenari euskaraz egingo dio, hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei lehen berba, gutxienez, euskaraz egingo die.



Belarriprest

Edozein pertsonak berari euskaraz egin diezaion prest dago, belarriprestak euskaraz zein erdaraz erantzuteko aukera izango duen arren.



Irribizi

Euskaraz ulertu ez arren poztan da euskara entzutean; euskararen aldeko ekimenakaz bat egiten du. Getxon eta Gorkizen darabilte.

rreren zenbaki-dantza hori. Getxon lortzen gabilta apurka-apurka herritarrek jakitea Euskaraldia izeneko kontu bat egingo dela eta hamaika egunez egingo dela, eta euskara gehiago entzuten dut herrian, baina hori nire pertzepzio pertsonala izan daiteke. I. V.: Antzekoa gertatzen da Erandion. Ahobizi gehiago dugu belarriprest baino, baina alde handi barik. Batzuek ahobizi modura eman zuten izena hasiera batean eta, rola ulertu ostean, aldatu egin dira.

Ulertu dira rolak? P. C.: Gaizki-ulertze bat egon da hasieratik: jendeak esaten du: «Nik euskaraz dakit, halandaze, ahobizi», baina gehiago dagokio norberaren jarrerari eta ez hainbeste jakintza-mailari. Ematen du 'belarriprest' figura sortu dela jende gehiago euskarara hurbiltzeko, gakoa belarriprest horiek erakartzean dagoela. Eskualdean belarriprest gutxiago dago eta ahalegina egiten dugu belarriprestak agertzeko. Jarduerak egiten direnean, betiko jendea elkartzen da eta denek ahobizi izan gura dute, kanpainaren parte izan gura dute. Z. A.: Leioan ere zenbakiak halakoak dira. Topagunetik bultzatzen zen askoz belarriprest gehiago egotea. Zergatik? Jende askok ulertzen duelako, berba egitera ausartzen ez dena. Bestalde, uste dut heldu garela batez ere euskaraz berba egiten dutenengana eta eurek grina ipini dutela. Euskaraz ulertzen duen jende asko dago horren berri ez duena, jaso edo interes handirik ipini ez duena, paso egin duena. Hori kolokan dagoela uste dut. P. C.: Betiko zirkuituetatik ateratzea litzateke kontua. F. P.: Ahobizi-belarriprest oreka horren gainean, guk Ge-

gunetan euskaraz berba egitera!»



omezkorta, Paia, Villaverde eta Calabaza jolasteko irrikan daude. OSKAR GUTIERREZ

txon maiatzean egin genuen esperientzia pilotu bat, 24 ordukoa, eta horrek ondorio batzuk utzi zizkigun. Berbarako, belarriprest-kuadrillak egun osoan erdaraz ibili zirela, rol horrek ahalbidetzen baitu hori. Azkenean, belarriprest izanda erdara hutsean ibiltzeko eskubidea daukate, ahobizi bat agertzen den arte. Gure ondorioetako bat izan zen helburua bada euskararen erabilera bultzatzea, agian ahobizi bultzatzea interesgarriagoa dela. Nik ez dakit zergatik sortu dugun diskurtso kristau hori: «Kontuz ahobiziok, ze gero bekatua egingo baduzue, hobe da belarriprest izan». Segur aski hamaika eguneko esperientzia daukagunean ondorioak aterako dira eta agian beste hausnarketa bat egin beharra egongo da funtzioen inguruan, eta zertarako balio duen bakoitzak. Z. A.: Belarriprest izateak ez du esan gura erdaraz egingo dela. Ni, berbarako, ahaleginduko naiz euskara egiten ahalik eta gehienetan, baina badakit batzuetan ez dudala lortuko. Horregatik, eta baita jendeak gaitasunagaz lotu ez dezan, belarriprest izatea aukeratu dut. Nik espero dut belarriprestek, euskara inguruan izanda, bultzadatxo bat jaso dezatela. P. C.: Niri berriro datorkit lehengo gogoeta hori: norberaren gogoarena. Ematen du rol batean sartzen bazara, daborduko beharrizan horiek daukazula eta hori egin behar duzula. Bakoitzak egingo du gura duena, denbora osoan. Belarriprest izanda ahobizi-papera joka daiteke denbora osoan, eta ahobizi rolean erdaraz egitekotan, norberak egin beharko du bere gogoeta, zergatik hartu dituen rol eta txapa horiek. Baina ez gaitzen lotu: jolas bat da. Sartuko gara rol horietan, jolastu gura

Berangon ere, prest dago lantaldea



Dinamizatzaile barik, lan kolektiboa da baliabide nagusia Berangoko Euskaraldian. Bertan, izena emandakoen ia % 30 da belarriprest. Oraindino inskribatu ez direnek aukera daukate Frontoi tabernan, Berangoeta kultur etxean, Berango-Merana eskolan, Eroskin eta udaletxeko postontzietan eta beren-beregi ipinitako informazio-mahaietan. Lantaldeak herritarrak animatu ditu Euskaraldian parte hartzera, «gure hizkuntza erabiltzen duguna baino askoz gehiago erabiltzea lor dezakegulako!».

Datozen egunetarako hainbat ekimen

Azaroak 8, eguena

LEMOIZ

18:30 | Herri-bilera, Armintzako kultur etxean.

GETXO

19:30 | Belarriprest eta ahobizientzako tailerrak, Areetako Elkartegian.

Azaroak 11, domeka

PLENTZIA

12:30 | Ahobizi eta belarripresten topaketa, udaletxean.

GORLIZ

12:30 | Euskaraldia prestatzeko saioa eta txapen banaketa, Sertutxenan.

Azaroak 13, martitzena

ERANDIO

19:00 | Ahobizi eta belarriprezentzako formakuntza-saioa, Erandiogoikoko Gizarte Etxean.

Azaroak 17, zapatua

LEIOA

11:00 | Ahobizi eta belarriprezentzako formakuntza-saioa, Lamia AEK euskaltegian.



INFO+

QR hau eskaneatu egitarau osoa irakurtzeko

dugulako, norberaren gogoia da gakoa.

I. V.: Belarripresten eremua oso zabala da. Hor bai egongo dira gaitasun ezberdinak. Erandion egingo diegu gonbita, nahiz eta belarriprest izan, pertsona batzuek leku zehatz batzuetan euskara gehiago erabiltze ahalegintzeko.

Zergatik eroan beharra dago txapa jantzita? Z. A.: Jolasean nor dabilen identifikatzeko. Antzina, atzerrian nenbilela, Bizkaiko matrikularen bat ikusiz gero, Málaga, berbarako, horrek harrotasuna eta hurbiltasun-sentsazioa ematen zidan. Nire ustean, horixe da kontua: «Hori bada, eta hori ere bai!». Erabilera lagunduko du, baita taldekidea harrotasunez sentiarazi ere.

P. C.: Lagunak egiteko ere baliagarria izan daiteke. Identifikazio horren bidez, has zaitezke ezezagunakaz berba egiten.

F. P.: Gai bitxia da identifikazioarena. Jende bati gustatu egiten zaio eta beste bati, ez. Getxon, esate baterako, sektore oso euskaltzale batzuek ez dute euren burua identifikatuko. Batek esan zuen bezala, «ez dut txapa bat jantziko egunero egiten dudana egiteko». Jarrera hori ere ulergarria da. Uste dut positiboa dela sorpresa batzuk eroango ditugulako jendeagaz, eta horrek euskara gehiago egitera bultzatzea dezakeelako.

I. V.: Erandion asko erraztuko du; jendeak, bizpahiru lagunek kenduta, dendetan sartzen denean, lehenengo berba beti erdaraz egiten du. Txapa ikusita, gehiagotan egingo da euskaraz.

Non eman daiteke izena eskualdean? Z. A.: Leioaztarrak.eus webgunean. Gune orokorra ere badago: Euskaraldia.eus. Kutxak ere badaude euskaltegietan eta herriko hainbat lekutan. I. V.: Erandion badago hainbat gune: eskoletan, liburutegian, Euskara Zerbitzuan, eta online, Euskaraldiko webgunean; bestealde, ekitaldietan ere izena emateko aukera eman dugu.

F. P.: Guk ere eskola-zentroen bidez egin dugu izen-ematea. Gainera, kultur etxeetan, kiroldegietan eta musika-eskoletan kutxak ipini ditugu. Eta badugu Getxoztarrak.eus webgunea. Gomendatzen dugu azken horretan ematea izena, lana aurrezteko eta Datuen Babeserako Legeagatik. Euskaraldiaren izen-emate orokorrean inskribatzen den jendeari guk Getxoko euskalgintzaren informazioa ezin izango diogu bidali. Ostera, Getxoztarrak.eus-en ematen dutenei Euskaraldia osoaren eta bertako Berbalagun dinamikaren informazioa eman ahal izango diegu; hamaika egunen ostean ere bai.

P. C.: Guk Uribe Kostako herri denetan ipini ditugu kutxak, jendeak izena emateko, baina datu horiek sartzen jardun dugun heinean, gero eta gehiago bultzatzen gabilta online-sistema. Etxean tako potolo bat daukat, akatsak dituzten inskripzioakaz. Batek posta-kodea ipini du posta elektronikoa ordez, beste batek ez du ipini ahobizi ala belarriprest izango den... Akats piloa dago eta banan-banan deitu behar dugu telefonoz, galdetzeko. Horrek asko atzeratu eta zailtzen du, jendeak ez du telefona hartzen... Norberak eginez gero, zerbait ez badu sartu atzera botako dio, berriro egingo du eta arin egiten da, minutu batean.

Z. A.: Garrantzitsua da online formularioan jendeak informazioa jasotzeko laukian sakatzeta. Bestela ezin diegu ezer bidali. Zelan jasoko dute txapa bestela?

Noiz arte eman daiteke izena? F. P.: Abenduaren 3ra arte.

Anekdotaren bat daukazue, konta daitekeena? F. P.: Diasporakoak. Gugana nahiko jendeak jo izan du, esanez egun horietan kanpoan egongo dela, Londresen, Australian... eta zelan har dezakeen parte. Mallorcako Euskal Etxeari txapak bidali dizkiogu. Inoiz Dia supermerkatuakaz lotutako deiren bat jaso dugu: «Euskara al Dia». Modu denetako anekdotak ditugu. I. V.: Batek behin esan zigun arduratuta zegoela: belarriprest izan gura zuela, ez zuela «minbizi» izan gura. ◀

HEZETASUNA AUZOKO JAI-BATZORDEA | San Martin jaiak Algortan

«Askotan ematen du Udalak ez dituela gauzak erraz ipintzen»

Ekitaldietako batzuk

Azaroak 9, barikua

17:00
Txupinazoa, Areneazpin.

17:30
Disco-festa, Iturgitxin.

22:00
Kontzertuak Iturgitxiko karpan, Love Masacre eta Urrats taldearenak.

Azaroak 10, zapatua

11:00
Umeentzako marrazki-lehiaketa, Garrobi elkartegaz, Areneazpin.

14:30
Herri-bazkaria, Iturgitxiko karpan.

19:00
Juanjo G. Mendibil aurrekulari-txapelketa, ikastolan.

22:00
Kontzertuak Iturgitxiko karpan, 22io eta Gigatrón taldearenak.

Azaroak 11, domeka

10:00
Lapikoko-txapelketa.

13:00
Poteoa auzoan zehar, Los Insurrectos taldeagaz.

20:00
Martintxo erretzea eta jaien akabua, Areneazpin.



INFO+

QR hau eskaneatu egitarau osoa irakurtzeko

Azaroaren 9tik 11ra arte, San Martin jaiak ospatuko dituzte Algortako Hezetasuna auzoan. Egitaraua prest dauka jai-batzordeak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Auzoko jaiak antolatzea ez da egun bateko kontua, ezta? Ez. Uda aurretik batzen hasten gara. Dena den, udaldian ez dugu batzarrik egiten; izan ere, oporrak eta inguruko jaiak direla eta, zaila izaten da biltzeko egunen bat adostea sasoi horretan. Baina irailetik aurrera buru-belarri hasten gara auzoko festak prestatzen. Hasieran aste bitan behin, behar-bada, eta ondoren astero. Hori gutxi izango balitz legez, jaiak amaitutakoan ere batzar bat edo bi egiten dugu, ospakizunak zelan joan diren baloratzeko eta zer edo zer hobe daitekeen ikusteko.

Ze zailtasun aurkitzen duzue bidean? Udalgariak eta dagozkien baimenak eskatzea izaten da lanik zailena. Gainera, orain dela gutxi erretiroa hartu du Getxoko Babes Zibileko arduraduna zenak, eta langile berri bat ipini dute haren lekuan. Hasiberria denez, oso zorrotza izaten ari da.

Udalak beharrezkoak direnak baino oztopo gehiago ipini ohi ditu? Ez dakigu esaterik dagoen oztopoak ipintzen dituen edo ez, baina batzuetan ematen du erraztasun asko ez dituela ematen. Seguru asko, eskatzen dituzten agiri denak beharrezkoak dira, ez dugu hori zalantzan ipiniko. Baina, bestalde, ona izango litzateke erraztasunak edo laguntza ematea horiek egiteko.



Udaren ostean, astean behin batzen dira jai-batzordeko kideak. OSKAR GUTIERREZ



Poztasuna

Adin denetarako ekitaldiak antolatu ohi ditu Algortako Hezetasuna auzoko jai-batzordeak.

Poztasunak ere izango dituzue, ezta? Bai. Jai-batzordeko kideontzat oso polita izaten da jendea auzoko jaietan gozatzen ikustea.

Ze helburu bete gura duzue jai-egitarauaren bitartez? Umeentzako, gazteentzako, helduentzako eta nagusientzako ekitaldiak egiten ditugu beti. Gauza ezberdinak egitea izaten dugu buruan. Jaietara datozenak pozik egotea da gure helburua.

Zer esango zeniekete herritarrei Hezetasuneko jaietara gonbidatzeko? Algortako Hezetasuna auzoko San Martin jaiak ezberdinak direla; gainontzeko festak udaldian izaten dira. Guk, ordea, ia-ia neguan egiten ditugu. Gainera, auzo txikia garenez, hurbiltasun handiagoa nabaritzen da ekitaldietan. ◀

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

Kalitatea ERASMUS+
Innovación
Desde 1993

BAI

Auzolana
Berrikuntza
KIVA

Oui

Areeta
Leioa
Sopela
Guarderia
Jantokia
Babes
Berritortza

Algorita

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

LEIOA | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Toki Plana

Berdintasunaren bidean, herritarren partaidetza lantzen

Urriaren akabuan hainbat eragilegaz lan-batzarrak egin ostean, azaroan berdintasun-planaren zirriborroa landuko du Leioako Udalak. Urte-akaburako prest egotea espero dute, Udalbatzak onar dezan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV Toki Plana lantzen dabil Leioako Udala, Murgibe berdintasuneko aholkularitza-zerbitzuaren laguntzagaz. Proiektu honen testuinguruan sei lantalde osatu zituzten, proposamenak jasotzeko. Urriaren 26tik 28ra arte egindako batzarretan diagnostikoaren emaitzak azaldu eta taldeka etorkizunerako planaren ekintza-ildoak landu ziren. Horretarako, lantaldeetan jorratutako arlo bakoitzagaz zerikusia daukaten eragileei eta erakundeei luzatu zieten parte-hartzeko deia.

Murgibe aholkularitza-zerbitzuko arduradunek aitortu duteenez, parte-hartzea ez da oso handia izan taldeka, «baina osotasunean hartzen badugu kopurua handitzen doa; 24 pertsonak (hemeretzi emakumek eta bost gizonak) euren proposamenak zuzenean eman zituzten». Besteak beste, ondokoak eskatu dituzte: emakumeen txoko bat sortzea, jaietan brigada feministak antolatzea, gizonakaz maskulinitate berriak lantzea, berdintasun-teknikaria lanaldi osoan kontratatzea, waterpoloko edo gimnasia erritmikoko emakumeak jaietako pregoilariak izatea, txikitatik nesken eta mutilen kirol mistoa egotea, guraso-elkarteek berdintasun-arduraduna izatea, liburutegian atal feminista ipintzea, eta emakume nagusiei zuzendutako jabe-kuntza programa bat martxan ipintzea.

DESBERDINTASUNAREN AURPPEGIAK. Oraindik ere, Leioan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-falta erakusten duten hainbat adierazle daude, Murgibe aholkularitza-zerbitzuko adituen berbetan. Berbarako, errenta-arraila %39koa da. Emakumeen batez besteko errenta 13.152 eurokoa da, eta gizonena 21.769 eurokoa. Bestalde, emakumeen langabezia-tasa %12koa da, eta gizonena %8koa. Enplegu-kontuak alde batera utzita, 2017an, Leioako 74 emakume artatu behar izan zituzten



Besteak beste, emakumeen kontrako indarkeriagaz amaitzeko prebentzioa eta arreta hobetu gura dute. HODEI TORRES

Ildo nagusiak

- Genero-ikuspegia udal-kudeaketan gehiago landu.
- Emakumeen jabe-kuntza bultzatzeko programak indartu, intersektionalitatea kontuan hartuta. Hau da, adina, ezintasuna, jatorria, sexualitatea eta abar.
- Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna lantzeko sensibilizazioa eta konpromisoak bultzatu.
- Emakumeen kontrako indarkeriagaz amaitzeko prebentzioa eta arreta hobetu.

genero-indarkeria dela eta. Berdintasunaren arloan lantzeke dauden hainbat arlo ere antzeman dituzte egindako diagnostikoagaz. Besteak beste, zaintzaileek babes handiagoa (ekonomikoa, psikologikoa...) behar dutela uste dute.

Bestalde, ikastetxeetako espazioak berrikusi beharko lirateke berdintasunaren ikuspegitik. Adibide bat aipatzearen, azpimarratu dutenez, «oraindik ikastetxeetako futbol-ateek espazio-so handia okupatzen dute eta ez diete lekuri uzten beste mota bateko joko eta jolasei». Horrez gainera, familiakaz berdintasunaren baloreak landu beharko lirateke. Gizonak ere gehiago inplikatu beharko lirateke zaintza lanetan. Azkenik, adindun emakumeak ikusezinak direla uste dute. Izan ere, horiek ere bazterkeria sufritzen dute, eta arreta handiagoa eman beharko litzaieke genero-indarkeria sufritzen duten emakume nagusiei.

Bitartean, herritarren proposamenak jasotzeko bideak ezarri dituzte. Orain arte, 90 pertsonak erantzun dute (%65 emakumeak eta %45 gizonak) eta aukera dago oraindino galdetegia (<https://tinyurl.com/y93z9y4f>) betetzeko. ◀

ander deuna
i k a s t o l a

Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus

Askotariko kulturak Getxon, mahaiaren inguruan

Txekiar Errepublikan orain dela hamahiru urte sortu ondoren, Europako hainbat tokitan egiten diren esperientziak dira Bizilagunak ekimeneko bazkariak. Getxon orain sei urte ekin zioten eta, orduetik, nazionalitate askotako familiak elkartu dira.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ►



Iratxe Unzurrunzaga

Algorta. Bi bider parte hartu du proiektuan

Zein izan da zure esperientzia Bizilagunak egitasmoan? Orain dela bi urte hasi nintzen parte hartzen. Lehenengo aldian dinamizatzailer modura, eta pasa den urtean dinamizatzailer eta familia gonbidatzaile modura, aldi berean.

Zer dela eta erabaki zenuen horretan parte hartzea? Lagun batek parte hartzen zuen, eta gero, parte-hartzaileen bideoak ikusita, animatu egin ginen. Oso egitasmo interesgarria iruditu zitzaigun.

Zelakoak izaten dira hitzorduak? Dinamizatzailer gisa, familia gonbidatzailearen eta gonbidatuen arteko dinamizazioa egin behar duzu, bazkaltzeko ordua lotu familiarekin, denontzako lekua eta azpiegitura daukaten galdetu, zerbaitek behar badute lortzen lagundu, eta horrelakoak. Gonbidatuekin hitz egin, jakiren bat jaten ez duten galdetu eta haiekin bazkaltzera joateko geratu. Familia gonbidatzaile legez, etxean etorriko direnentzat dena prestatu.

Kultura eta bizipen ezberdineko jendea biltzen zarete bazkari horietan. Ezberdintasunak baino, berdintasunak ere badituzue, ezta? Bai noski, oso giro polita sortzen da, denok ezagutu nahi ditugu gure artean bizi diren pertsonak, aniztasuna maite dugu, elkar ezagutu, bai gonbidatuak bai familia gonbidatzaileak ere. Denok gara familiak.

Uste duzu mota honetako ekimenak baliagarriak direla gaur egungo arrazakeriari aurre egiteko? Ziur nago, beste kulturetako pertsonak ezagutzea beti da aberasgarria. Bakoitzaren errealitatea ezagutzeak elkartu egiten gaitu, oso elkarriketa gozoak eta interesgarriak sortzen dira.

Familia horiekaz harremanak mantentzen dituzue? Batzuekin bai.

Egitasmoan parte hartu ez dutenei gomendatuko zenieke izena ematea? Bai, aukera polita gure inguruan bizi diren beste familia batzuk ezagutze-ko, ondo pasatzeko.

Grace Caroline Cadena

Ekudador. Behin parte hartu du proiektuan

Zein izan da zure esperientzia Bizilagunak egitasmoan? Bertokoa den familia bat ezagutu ahal izatea izugarri pozgarria izan da, euren ohiturak eta kultura ezagutzeko. Ni 2006an etorri nintzen Euskal Herrira. Migratzea oso gogorra izan da nire familiarentzat, eta oso gustura sentitu naiz gure bizipenak entzun eta ulertu dituen familia batez bazkari bat partekatuz.

Zer dela eta erabaki zenuen horretan parte hartzea? Gure nazionalitate bereko lagunik ez dugu, ez dugu inor ezagutzen hemen. Hala, gurasoak konbentzitu nituen ekimenean parte hartzeko, jende ezberdina ezagutu ahal izateko.

Zelakoak izaten dira hitzorduak? WhatsApp bidez proiektuaren nondik norako denak azaldu zizkiguten. Familia batek bere etxera gonbidatu gintuen eta hitzordua adostu genuen. Familia bien arteko erlazioa oso ona izan zen, etxean bezala sentitu ginen. Gure etxean beti jan ohi dugu arroza laguntzaile modura, hemen, aldiz,


ogia. Orduetik, beti izaten dugu ogia mahai-gainean.

Kultura eta bizipen ezberdineko jendea biltzen zarete bazkari horietan. Ezberdintasunak baino, berdintasunak ere badituzue, ezta? Denak baten gaitu, baxuak edo altuak izan. Beltzak, zuriak edo mestizoak izan gaitzke, baina horren gainetik pertsonak gara.

Uste duzu mota honetako ekimenak baliagarriak direla gaur egungo arrazakeriari aurre egiteko? Bai noski, ezin dugu jendea epaitu bere jatorriagatik. Nork bere ohiturak eta kultura dauzka.

Familia horregaz harremanak mantentzen dituzue? Bai, lagunak gara.

Egitasmoan parte hartu ez dutenei gomendatuko zenieke izena ematea? Bai, gure herrietatik alde egin dugunon errealitatea ezagutzeko aukera paregabea da hau. Guretzat, garrantzitsua da entzun gaitzatela.



Seigarren urtez, bertoko familia «autoktonoak» eta bertakotutako atzerriko familiak bazkaltzeko elkartuko dira Getxon azaroaren 11n, domekan. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak, Getxoko Udalak eta Getxoko Etorrinak Plataformak antolatu dute ekimena, Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz. Iaz 21 bazkari egin ziren denera hemen, eta 48 familiatako 175 pertsonak parte hartu zuten horietan. Bertokoakaz batera, besteak beste, Guatemala, Peru, Nikaragua, Paraguai, Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Honduras, Uruguai, Kuba, Venezuela, El Salvador, Filipinak, Italia, Sahara, Aljeria eta Errumaniakoak. Aurten, lerrook idatzi bitartean, 26 familiak izena eman dute, eta hamabi dinamizatzaile daude bazkariok antolatzen laguntzeko. Hala ere, azkenean gehiago izan daitezkeela jakinarazi du Rozio Lucas Bizilagunak ekimeneko antolatzaileetako batek, «saiazen gara inor ez baztertzen».

Ekimenaren helburua da herri edo inguru berean bizi diren pertsonak elkartzeko zubiak eraikitzen laguntzea, eta esperientziak partekatzea. Urte osoan zehar udalerrian aurrera erooten den Bizilagunak Elkarteko Bideak ekimenaren barruan kokatzen dira bazkariak. Ekimenean parte hartuko duten familien etxeetan izango dira otorduak, eta topaketa bakoitzean bertoko familia bat, atzeritik heldutako familia bat eta bazkaria antolatzen lagunduko duen dinamizatzaile bat elkartuko dira.

BIZILAGUNAK, ELKARTZEKO BIDEAK. Urtean zehar aurrera erooten da Bizilagunak programa. Aipatutako bazkarietatik sortu zen, eta horrez geroztik ekitaldiak joan zaizkio gehitzen. Aukera ezin hobea da auzoan harreman berriak sortu gura dituzten pertsonentzat, baita kulturen arteko topaketa bizi gura dutenentzat ere, euren partekatuz eta udalerriko aniztasunera zabalduz. Gainera, Bizilagunak ekimenak Zurrumurruen kontrako Estrategiagaz bat egiten du, kultur aniztasunari, imigrazioari eta babes-gaiei lotutako estereotipoei eta aurreiritziei aurre egiteko. ◀

Amalia Lezcano

Paraguai. Behin parte hartu du proiektuan

Zein izan da zure esperientzia Bizilagunak egitasmoan? Iazko edizioan parte hartu nuen lehenengo aldiz, eta oso polita izan zen, ez dakit zelan azaldu. Esperientzia oso ona izan da, eta bertoko kulturaz zein kanpoko beste batzuez asko ikasteko baliagarria izan zait.

Zer dela eta erabaki zenuen horretan parte hartzea? Mujeres con Voz elkartean nengoela, baten batek proiektu honen nondik norakoak azaldu zizkidan, eta horretan parte hartzea animatu nintzen.

Zelakoak izaten dira hitzorduak? Oso ondo pasatu genuen iazko bazkari horretan. Nik ume bi ditut, eta dibertitu egin ziren eurak ere. Gure familiatik lau joan ginen, gonbidatu zigun familiako beste hiru zeuden, eta beste emakume bat egon zen gurea. Guk postre bat eraman genuen, eta euren gainontzeko janaria ipini zuten, bakoitzak bere herrialdeko zerbait tipikoa ipini zuen mahaiaren gainean.

Kultura eta bizipen ezberdineko jendea biltzen zarete bazkari horietan. Ezberdintasunak baino, berdintasunak ere badituzue, ezta? Oso aberasgarria da dena, gainontzekoez asko ikasteko aukera dagoelako. Gainera, bazkariotan etxean egon banintz bezala sentiarazi didate, harrera oso ona egin ziguten.

Uste duzu mota honetako ekimenak baliagarriak direla gaur egungo arrazakeriari aurre egiteko? Nik uste dut baietz. Honelako gauzetan ez dut inolako diskriminaziorik sentitu inoiz, inondik inora.

Familia horregaz harremanak mantentzen dituzue? Bai, txangoak eta bestelako hitzorduak egin ditugu elkarrengatik. Bizilagunak egitasmoaren beste inizatibetan ere parte hartu izan dugu, jende asko ezagutu dut horiei esker.

Egitasmoan parte hartu ez dutenei gomendatuko zenieke izena ematea? Bai. Esperientzia aberasgarria da.

Lucia Martinez

Algorta. Bi bider parte hartu du proiektuan

Zein izan da zure esperientzia Bizilagunak egitasmoan? Duela hiru urte parte hartu nuen aurrenekoan, nire ahizparen etxean. Berak antolatu zuen eta gonbidatuta joan nintzen, Kolonbiako beste familia batekin batera. Ondoren, gure etxean esperientzia errepikatu nuen, Filipinetako hiruzpalau andrearekin. Oso aberasgarria izan da.

Zer dela eta erabaki zenuen horretan parte hartzea? Jende ezberdina ezagutzeko aukera da. Herri honetan kanpoko familiak daude, eta guretarak dira ere. Batzuetan nahiko partzelatuta gaude denok, gure jatorriak inportantzia handia du lagunak egiterako orduan, baita esperientziak konpartitzeko orduan ere. Hala, egitasmo honek elkar ezagutzeko aukera eskaintzen du, eta disfrutatzeko beste modu bat ere bada.

Zelakoak izaten dira hitzorduak? Ondo pasatzeko eta giro ona izateko biltzen gara, beti. Horrez gainera, bakoitzak bere bizitza kontatzen

du: nondik datorren, bere tradizioak, ohiturak, zelan bizi dituzten hainbat gauza eta janariak. Azken hori oso garrantzitsua da, bakoitzak berea eskaintzen diolako besteari.

Kultura eta bizipen ezberdineko jendea biltzen zarete bazkari horietan. Ezberdintasunak baino, berdintasunak ere badituzue, ezta? Niretzat oso gogorra izan zen Filipinetako andre hauen hemengo bizimodua ezagutzeko lanak oso ordu gutxi eskaintzen die-lako astean beren bizitza egiteko.

Uste duzu mota honetako ekimenak baliagarriak direla gaur egungo arrazakeriari aurre egiteko? Duda barik.

Familia horregaz harremanak mantentzen dituzue? Bai, kalean topo egin dugu inoiz, eta telefonoak elkarri eman dizkiegu.

Egitasmoan parte hartu ez dutenei gomendatuko zenieke izena ematea? Bai, noski, giro ona sortzeko asmoa baldin badago.



Zu zara giltza

Ez utzi biharko;

egin zaitez **HIRUKA**lagun

Egoera ekonomikoak itolarrian utzi du HIRUKAren proiektua; aurrera egiteko, ezinbestekoa da zure laguntza. Urtea amaitu baino lehen 333 HIRUKAlagun berri egitea da erronka. Utzi bazterrean axolagabekeria, eta babestu euskarazko prentsa. Urtean 35 euro baino ez dira!

944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

HIRUKAlagun
egitea, klik batera
QR hau eskaneatu eta
egin zaitez HIRUKAlagun
minutu batean.



hiruka

ZIORTZA LLONA ETA MOUNASSE NDIAYE | *Muna* komikia

«Jendeak ondo daki etorkinek egoera latza bizi dutela»

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Bere zaletasuna gizarte-ekintzarako tresna bilakatu du Ziortza Llona Lasagabasterrek: orain dela hamarkada bat baino gehiago Senegaldik etorri zen Mounasse Ndiaye *Muna*-k gurean bizi izandako gorabeherak komiki batean laburbildu ditu marrazkilari erandioztarrak. Horretarako, Eraikiz Kolektiboaren, Marienea Basauriko Emakumeen Etxearen eta Ongi Etorri Errefuxiatuak erakundearen laguntza izan du Llonak.

Zelan erabaki zenuten *Muna* komikia egitea? ZIORTZA LLONA: Bere lehengusuaren bitartez izan genuen Mounasse Ndiayen egoeraren berri. Senidea oso larrituta zegoen, ordurako *Muna*-k hamar urte zeroatzalako Senegaldik kanpo eta gurera ailegatu zenetik egoera berebete zegoelako. Eraikiz Kolektiboagaz, Marienea Basauriko Emakumeen Etxeagaz eta Ongi Etorri Errefuxiatuak erakundeagaz batera, laguntzeko zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen.

***Muna*, zelan hartu zenuen kanpotik etorri eta egoera kaskarrean dauden horien denen irudia zu izateko proposamena?** MOUNASSE NDIAYE: Goibel bizi nintzen; zama handia neroan aldean, ez nekielako egun batetik bestera zer gertatuko zen nigaz. Pisu hori arintzeko modu bat izan zen aurpegia nik ipintzea komikiari. Orain dela gutxi arte, nire egoerari irtenbidea zelan emango nion pentsatze hutsak ez zidan lo egiten uzten. Gaur egun goxo-goxo lo egiten dut, jasotako laguntzari esker.

Zein da Euskal Herrira datozen etorkinen egoera? M.N.: Pertsona bakoitzak bere egoera bizi du. Batzuk euren sendien egoera ekonomikoa hobetu guran etortzen dira; eurek irabazitako dirua barik gatzat izaten da atzean utzi dituzten senideen biziraupena bermatzea. Nire kasuan, oster, ez neukan horrelako zamarik: familia apala izan arren, senideek ez daukate nire laguntzaren beharrik. Nire etorkizuna eta amaren zein neba-ahizpen egoera hobetzeko helburuagaz etorri nintzen, baina etorri aurretik buruan daukazuna eta heltzen zarenean aurkitzen duzuna ez dira berdinak izaten.

Z.L.L.: Oro har, zama bikoitza izaten dute: alde batetik, egun batean eta bestean nabaritzen duten zama indibiduala dago, beti mugan: «Ordaindu ahal izango dut alokairua?», «Gaur zer edo zer salduko dut kalean?»... Beste alde batetik, *Muna*-ren kasuan ez horrenbeste, baina bai beste kasu askotan, familiari laguntzeko dirua lortu behar izateak sortzen duen zama. Estutasun bikoitza dute. Gainera, kontuan hartu behar dugu gehienetan sendi handiak izaten direla. Beharrak neurri horren araberakoak izaten dira.

Egoera horren gaitza bada, zergatik segitzen dute pentsatzen hona etorrita euren egoera hobetuko dela? Z.L.L.: Hobetu guran etortzen diren arren, euren bizitza-proiektua, zeuzkaten espektatibak eta helburuak erabat zapuztuta geratzen dira.



Komikia aurkezteko berbaldiak ematen dabiltza Llona eta Ndiaye. OSKAR GUTIERREZ



Indarkeria matxista

Komikiaren marrazkiak amaituta zituztela, *Muna*-ren lagun min Maguette Mbeugou senegaldarra hil zuen haren senarrak Bilbon. Ziortza Llonak azaldu duenez, «*Muna*-k oso ondo ezagutzen zuen Maguetteen egoera, baina hark ez zuen salaketaarik aurkeztu gura, senarrak umeak eroatearen beldur zelako. Hala ere, egoera hain jasanezina zenez, azkenik gizona salatu zuen, baina Gizarte Zerbitzuek ez zuten ezelako arriskurik ikusi. Ez zuten babestu, eta gertatu zena gertatu zen». Mbeugouri eskaini gura diote komikia Ziortza Llonak eta Mounasse Ndiayek.

Hala ere, oso gogorra izan behar du zure herrian eta zure familiaren aurrean esateak gauzak ez direla ondo joan; oso umiliagarria izan behar du. Hori dela eta, jendeak askotan ez du azaltzen benetan dena, apaintzen du zelanbait. Horrek eragiten du etorkinen jatorrizko herrialdeetara ailegatzen den mezua, askotan, erreala ez izatea. Espektatibak sortzen segitzen dute eta, hona etorrita, horiek denak ez direla betetzen ikustean, kolpe handia hartzen dute. Gorputz bakar batentzat izugarriko zama dakar horrek.

Honebestez, zein da komikiaren helburua? Z.L.L.: Aurretik beste modu batzuetan lagundu genuen *Muna*. Hasiera batean, kontu administratiboakaz, paperakaz... Orduan ikusi genuen horrenbeste sufrimendu denbora luzez bakarrik jasateagatik laguntza psikologikoa ere behar zuela. Eta azkenik, berak ahaldundu behar zuela pentsatu nuen: bere mezua botatzea eta indartsu sentitzea beharrezkoa zuen. Zelanbait, zentzua ematea berak bizi izandako guztiari. Hortik atera zen komikia egiteko ideia. Horrez gainera, argitalpen honen bitartez, hamar urte pasata, gaixo dagoen bere ama ikustera joateko bidaia ordain genezakeela pentsatu nuen.

***Muna*-ren lagun mina zen Maguette Mbeugou hil zuen haren senarrak. Emakume etorkinak birritan dira biktimak?** Z.L.L.: Ez da kasualitatea gizon kanpotar batzuek, edo behintzat eraso-tzaileak direnek, gura ez izatea euren bikotekideek gaztelania ikastea. Hizkuntza menperatzen ez baduzu isolatuta zaude, eta egoera horretan, lau hormaren artean, edozer gerta daiteke.

Hemengo jendea egoeraren jakitun da? M.N.: Jendeak ondo baino hobeto daki etorkinek egoera latza bizi dutela. Ahal den neurrian, laguntzeko eskatu gura diet. ◀

HIRUKAren berbaldi irekiak



Antzerkia

Azaroak 9, barikua

7ak bat helduentzako antzezlan

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

ATX Teatroa taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 6 euro.

La maldición de los hombres Marlboro

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Excéntrica Producciones Andaluziako taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 7,50-15 euro.

Azaroak 10 eta 11

Rezikletas kale-ikuskizuna

Lamiako eta Txorierrri | Leioa

Turukutupa taldeagaz. Zapatuko saioa Lamiako metro-geltokiko plazan izango da, 13:00etan, eta domekakoa Txorierrriko plazan, 13:30ean. Doan.

Azaroak 10, zapatua

Área de servicio, helduentzat

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Azaroak 11, domeka

Tor magoa

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Magia-ikuskizuna. Euskaraz. Sarrera, doan.

Inondik inora

18:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Benetan Be taldeagaz. 4 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 3-5 euro

BERANGO | Mahai-ingurua

Eskualdean berbaldiak eta topaketak antolatu ditu HIRUKAK udagoieneko eguenetan, herriz herri hainbat gairen gaineko eztabaidak pizteko. Modu berean, gure komunikazio-proiektuaren egoeraren berri emango dugu. Laugarren hitzordua Berangoko Neba-arrebak tabernan (Sabino Arana, 20) izango da, azaroaren 8an, arrastiko 19:00etan, Berangoko Gazte Mahaiaren lankidetzagaz. Gazte mugimenduko Ainara Lukek eta Getxoko Pentsionisten Elkarteko Begoña Zorrozuak berba egingo dute.

Bertsolaritza

Azaroak 9, barikua

Bihotza Gazte 2018

20:30 | Azebarri kulturunea (Algorta) | Getxo

Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe II* eta Xabier Zeberio *Zeberio I* bertsolariakaz. Sarrera, doan.

Erakusketak

Azaroaren 22ra arte

Gernika 1937-2018

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Grabatuak, argazkiak eta pintura. Sarrera, doan.

HIRUKA proiektuari laguntzeko, bertsoak kalez kale



ALGORTA | Bertso-poteoa ALBEren laguntzaz, azaroaren 15ean izango da hitzordua. Arrastiko 20:00etan, Ajuria tabernatik abiatuta.

Azaroaren 12tik 24ra arte

Emakumeen genitalen mutilazioaren kontra

Algortako kultur etxea | Getxo

Munduko Medikuek erakundeak antolatuta. Asier Alcantaren argazkiak. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Azaroak 9, barikua

Margo-tailerra umeentzat

18:00-19:00 | Udal-liburutegia | Barrika

Ekitaldia 5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat da. Doan. Izen-ematea: liburutegia@barrika.net

Musika

Azaroak 8, eguna

Yurodivy, LMDA eta Fiambre

19:30 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela

Sarrera, doan.

Daniel Merino (pop-rocka)

20:00 | Piper's taberna (Algorta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuitua. Doan.

Azaroak 9, barikua

Plentzia Kantagune

19:30 | Baseliza | Plentzia

Entsegua egin ostean, kantu-jiran abiatuko dira, 21:00etan, elizako plazatik. Parte-hartzea libre.

Zinema

Azaroak 8, eguna

Marie Curie

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Itzartu emakumeen elkarrekin antolatuta. Genero ikuspegiko zinema. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Azaroak 10, zapatua

Small foot

18:00 | Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Azaroak 11, domeka

Lego Ninja Go

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Euskaraz. Sarrera, doan.

Azaroak 13, martitzena

La Por

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo zineforuma. *Biolentzia vs bizitza* zikloaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Zinea
«El Capitán»

Jatorrizko Izenburua: *Der Hauptmann*
Zuzendaria/Gidoilaria: Robert Schwentke

Azaroak 9 - 21:00
Andres Isasi Musika Eskola. Areeta.



IZASKUN RODRIGUEZ ►

Donostiako Zinemaldiko 65. edizioan argazki onenaren saria jaso zuen Robert Schwentkek idatzi eta zuzendutako *Der Hauptmann* filmak. Egiazko gertaeretan oinarrituz egin du bere lan sakonena zinemagile alemaniarrek II. Mundu Gerrako azken egunetan kokatzen gaitu istorioak. Ihesean dabilen soldadu nazi gazte batek, bere burua salbatzeko, kapitain baten uniforme lapurtu du. Baina itxura ez da haren aldatuko den gauza bakarra; komando batek bategaz batera, edonor hiltzeko eta arpilaketan ibiltzeko boterea sentituko du. Krudelkeriari aurpegia ipini diona Max Hubacher antzezle suitzarrak dugu. Asko ustiatu ez den ikuspuntu bat ezagutarazten digu filmak: naziak euren ejertzitoko iheslarien kontra egindako sarraskia. Gizakion mugagabeko degradazioaren ideia detailezko argazkiak eta zuri-beltzaren aukeraketak indartzen dute, ikusleari odol gorriaz harago begiratzera bultzatuz eta garaiarekiko distantzia ipiniz. Horrelako lan bat jatorrizko azpiztituludun bertsioan entzuteak duen balioa probatzea merezi du. Eta bitxikeria zaleak, adi: amaierako kredituetan filmeko komandoa gaur egungo Alemanian agertzen da.

hiruka app berria

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

- Agenda
- Albisteak
- HIRUKA astekaria
- Argazkiak eta bideo albumak
- Geolokalizazioa
- SOS botoia



Deskargatu!



GETXO | Nazioarteko Mendiaren Astea

Hogeigarren gailurrera igotzear

Getxoko Itxas Argia mendi-taldeak Mendiaren Nazioarteko Aste berezia antolatuko du aurten: hogeigarrena. Ohiko berbaldiez gainera, Mendi Tour zinema-ekimena ere ekarriko du, azaroaren 13tik 15era eta 20tik 23ra.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Bilbao Mendi Film Festivalek 11. edizioa ospatuko du urte amaieran, abenduaren 7tik 16ra bitartean. Nazioarteko jaialdi hori ailegatu bitartean Mendi Tour zirkuitua Itzubaltzeta/Romotik igaroko da, datorren asteko martitzenetik eguenera. Mendi Tourrek Mendi Filmaren aurreko edizioaren film onenak eskainiko ditu, mendi-zinema-gintzaren zaleak asetzeko. Hitzordua Romo kultur etxean izango da azaroaren 13tik 15era; egun denetan 19:30ean hasiko da emanaldia. Sarrera irekia eta doakoa izango da, leku mugatuak bete arte. Film denak jatorrizko bertsioan eskainiko dira, azpi-idatziakaz lagunduta. Ekimenean honako eragileak dira laguntzaile: Itxas Argia Getxoko mendi-taldea, Getxoko Kultur Etxea, Getxo Kirolak eta *Desnivel* aldizkaria.

Martitzenean *The Time Within* eta *Aurrera* film labur euskaldunak eskainiko dituzte, baita *Bonington: Mountaineer* ere, iazko Bilboko Mendi Film Festivaleko Mendiko Film Onena.

Eguaztenean ikusgai izango dira *The Last Honey Hunter*, iazko Kultura eta Natura Film Onena, *Uruca II. Bugaboos edition* film laburra, eta *Psycho Vertical*, azken festibaleko Gidoi Onenaren Saria. Mendi Tourra amaitzeko, lau film proiektatuko dituzte eguenean: *Where the Wild Things Play* film laburra, iaz Epaimahaiaren Saria jaso zuen *Mama lana*, Zuzendari Onenaren saria lortu zuen *The Frozen Road* filma, eta *Safety Third*, azken jaialdiko Eskaladako Film Onena.

OHIKO MENDIAREN NAZIOARTEKO ASTEA. Itxas Argiak antolatu duen ohiko ekimenari dagokionez, azaroaren 20tik 23ra egingo dute, egunero 19:30ean. Saio denak Fadurako areto nagusian izango dira, azkena izan ezik; izan ere, Itzubaltzetako kultur etxean egingo dute barikuko berbaldia. Ekintza denetan sarrera irekia eta doakoa izango da, leku mugatuak agortu arte.

Ekimenaren XX. aldian, protagonistak honako hauek izango dira: Iñigo Santxo Monzón, Diana Calabuig, Iker Madoz eta Mikel Zabalza. Astea Iñigo Santxo Monzónnek irekiko du,



Irene Sarrionandia da *Aurrera* euskarazko film laburraren protagonista. © MIKEL PEÑA-BILBAO MENDI FILM FESTIVAL

Kataluniako mendi-ekarpena

Ni guerreras, ni princesas izango da Diana Calabuigek jorratuko duen gaia, eguaztenean. Kataluniako Erakunde Txangozaleen Federazioko (FEEC) kideak aurreratutakoaren arabera, «Garenaren, izan gura dugunaren eta gu izan gaitzela gura dutenaren arteko bidea ibiltzea nahiko nuke».

martitzenean, azaroaren 20an. Getxoztarrek *Algortatik mendia bide*, *Pirinioak* eta *Alpeak* izango du berbabide, euskaraz. Santxok azaldu duenez, «mendiarekiko daukadan grina nondik datorkidan oraindino zehazki ez dakidan arren, txikitatik nire barruan hainbat ibar, herri eta mendi ezagutzera bultzatu nauen zer edo zer sentitu izan dut. Lau urtaroretan, Pirinio eta Alpeetako inguruak oinez, mendiko eskiez edo bizikletaz egin ditut». Berbaldi «labur» horretan Santxok bere lehen irteerak kontatuko ditu, garai batean izandako antolatze-lanen ikuspuntutik. Horren ondoren, 2017ko neguan egin zuen Monte Rosa mendigunearen itzulera aurkeztuko du gazteak. Saioa amaitzeko, bertaratuko direnek aukera izango dute bideo bat ikusteko; bertan, lau gazte algortarrek joan den irailean Alpeetan egindako ekintza biren berri emango dute. ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

eko haragia
HARATEGI EKOLOGIKOA

Larrean hazitako animalien haragi ekologikoa. Gure baserrian ekoiztutakoa.

Haragi-produktu artisauak

Ordutegia: Astearte, asteazken, ostiral eta larunbat goizetan eta ostiral arratsaldeetan

Kasune 46, Algorta
www.ekoharagia.com
Tf: 94 612 15 79

5 URTE EUSKARARI PUZKA

SUSTATU EUSKARA
NAFARROA HEGOALDEAN.
URRIAREN 25ETIK AZAROAREN 14RA
ESKATU SASKIA(k) 50€ REN TRUKE ETA JASOTAKO
DIRUAREN %25 BERTAKO EUSKALGINTZARA BIDERATUKO DA.



KUTXA BELTZA

OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
OZPIN EKOLOGIKOA
MAHATS-ZUKU EKOLOGIKOA
ORBURU-BIHOTZAK, PIPER TXORIZERO MAMIA
POTXAK, ARDO BELTZ EKOLOGIKOA
ZAINZURI ZURIAK, BORRAJA EKOLOGIKOA
PIKILLO PIPER OSOAK, ARBENDOLAK
TOMATE FRIJITUA

PIKILLO SALTSA, PASTA EKOLOGIKOA
PIKILLO PIPER OSOAK
ORBURUAK, ZAINZURI ZURIAK
ARDO BELTZ EKOLOGIKOA
ZAINZURI-KREMA, PIPERRADA
ARDO ETA KANELA PASTAK
OZPIN EKOLOGIKOA, ARROZA, TEILAK
TXOKOLATEZKO COOKIEAK

KUTXA ZURIA



Gabon
hauetan, HIRUKA-
LAGUN guztien artean, Erri-
goraren lau saski zozkatuko ditugu.
Nafarroa hegoaldeko baratza dastatzeko eta
euskara bultzatzeko egundoko aukera! egin zai-
tez HIRUKALAGUN eta zuk ere zozketan parte hartu!

ERRIGORA
www.eus

PARTE HARTZEKO:

administrazioa@hiruka.eus | 94 491 13 37

ZOZKETAN

UNIBERTSITATEA | Jarduketa-protokoloa martxan

Tuberkulosia aurkitu diote EHUKo ikasle bati

Osakidetzak jarduketa-protokoloa martxan ipini du, Bizkaian tuberkulosi-kasu bat baieztatu ostean; Leioako campuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean ikasten dabilen pertsona bat da, EHUK berak baieztatu duenez. Gaixotasuna kutsatzeko arriskuan egon diren pertsonen dagozkien neurriak ari zaizkie aplikatzen. Datozen egunetan, ikastegi horretako langileen eta ikasleen kontaktu posible denek hitzordua jasoko dute gaixorik ez daudela ziurtatzeko. EHUK adierazi du tuberkulosia gaixotasun arrunta dela eta gaur egun, tratamendu egokiaz, sendatu egiten dela.



BERANGO | Suteak prebenitzeko alarmak

Udalak 70 urtera arte jaitsi du aurtentxe bizitzetan suteen kontrako alarmak ipintzeko adina. Denera, 131 etxetan ipini dituzte dispositibo horiek.

BERANGO | Aurrekontu parte-hartzaileak

Azaroaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak. Denek udal-eskuduntzakoak izan beharko dute.

LEMOIZ | Izenadubara txangoa

Txangora joan gura dutenek azaroaren 30era arte izena eman dezakete. Bidaia abenduaren 19an izango da, Lemoizko Udalak antolatuta.

GETXO | Komun publikoak

Bizkaia Zubiko plazan, Gernika parkean eta San Inazio parkean komun publikoak instalatzeko 327.000 euro bideratuko ditu Udalak.

AIREPORTUA | Saien arazoa konpondu guran

Premiazko neurriak eskatu ditu Erandiok Madrilen

Udalak gogorarazi duenez, azkenaldian gero eta sai gehiago ikusten dira aireportuko inguruetan, eta maiatzean animalia baten eta hegazkin baten arteko talka gertatu zen Zamudion. Uztailean beste bat izan zen Getxon.



URIBE KOSTA | Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Lau uribekostar izango dira hurrengo fasean

Berriatua jokatu zen azken kanporaketa, azaroaren 4an. Bertan, Oihana Bartra bilbotarrak lortu zuen finalaurrekoetarako txartel zuzena. Lau uribekostar izango dira hurrengo fasean: Jone eta Imanol Uria, Unai Mendiburu eta Arrate Illaro.



ANJE DUHALDE | Musikaria

«Ez dakit gaur egun ze puntutaraino duen interesa hamar kantuko disko batek»



GOIZALDE LANDABASO-BERRIA.EUS | Athletic 25-0 Getxo

«Agian, suerte apur batekin, irabazle batek zer ez duen egin behar ikasi dute futbolari gaztetxoek»

263

ekarpenetik zortzi proiektu onartu ditu Getxoko Udalak 2019ko aurrekontuetan txertatzeko. Horietatik, herritarrek zeintzuk lehenetsi gura dituzten bozka dezakete azaroaren 11ra arte.

Algortako 19. Indabada, iruditan



Gu ere kutsatu gaitu bertako giro alaiak, bideo honek agerian utziko duenez.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Oskar Gutierrez
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino
Kolaboratzaileak: Asier Barruetabeña, Alazne Palacios, Izaskun Rodriguez, Kerman Santiago
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

**Getxoko Kultur Etxeari
esker, *Intensamente*
azules ikuskizunerako
sarrera bikoitzak
zozkatuko ditugu**

Azaroaren 17an (zapatua) eskainiko den ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, azaroaren 13a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Azaroko saria



Bizkaiko Bertsolaritza Txapelketako finalera joateko sarrera bikoitzak

Bizkaiko Bertsozale Elkarteari esker zozkatuko ditugu HIRUKA lagun eta bazkideen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali azaroaren 30a (barikua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		6				7	4
							3
		3			7	5	
				9	3		
		1					2
	8		1		2		3
	1		4			8	5
7	6						
5				2	8		

			8	3		1	6
3	8						4
				6			
	6	3				9	
		5	3				
1				9	4		
				1			5
		4	2		6		9
8	1					2	

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

7	9	2	3	4	5	6	1	8
1	6	8	7	2	7	4	3	5
3	5	4	1	8	9	6	7	2
5	3	7	4	6	9	8	2	1
2	4	1	6	8	3	5	7	9
8	1	9	2	5	7	3	6	4
9	8	3	7	6	4	1	5	2
6	7	5	1	2	9	8	3	4
4	2	6	5	1	8	7	9	3

8	5	6	9	3	1	2	7	4
1	7	6	5	2	4	9	8	3
2	4	3	8	6	7	5	1	9
9	2	7	5	6	3	1	4	8
4	3	1	7	8	9	6	5	2
6	8	5	1	4	2	7	3	9
3	1	2	4	7	6	8	5	9
7	6	8	3	1	5	9	2	4
4	6	5	2	8	3	1	9	7

Hitza emanda

Klima

*Tximinia, fabrika,
kea zein galdara...
eta tenperaturak
a ze gorakada!
Gizakiok ez goaz
ondo beharbada,
klima aldatzeraino
iritsi bagara!*



PERU VIDAL GURRUTXAGA
Leioa



Tradizioari begira, barran eta frontoian

TXIBERRI
EDANTOKIA



**Txiberri
edantokia**

Aita Gotzon, 4
URDULIZ
946 760 715
jontxiberri@
hotmail.com

Erraz topatuko duzu
Urdulizko taberna hau.
Udaletxearen parean
dago, errepidearen
bazterrean, eta sano
ezaguna da pintxo
gozoengatik eta bere
frontoiagatik.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: OSKAR GUTIERREZ ▶

Urdulizera hurbiltzen garen bakoitzean, derrigorrezko gel-toki bihurtu da Txiberri, Elortza herri-ikastetxearen eta udaletxearen artean dagoen edanlekua. Tabernara sartu bezain laster, pintxo betetako barrak ematen digu ondoetorria bisitari. Denetarik topa daiteke bertan, ohiko tortilletatik hasita, ogitarteko landuagoetara. Bertakoek azaldu dutenez, bezeroen gustuetara egokitutako mokaduak dira horiek: «Badago "bere pintxo" hartzeratorrena, tradizio handia dago hemen». Horien denen artean nabarmenezkoa da orriotara ekarri dizuegun pintxo. Ogitarateko hori 1,2 euroan saltzen dute; hala ere, jakinarazi digutenez, baliteke egunen batean hori barran ez aurkitzea, amaitu egin delako edo bakailaorik ez dagoelako. Batera zein bestera, hori zelan egiten den erakusteko baimena eman digute. Goazen bada! Lehenengo eta behin, ogi-zati bat hartu eta oliba-oliotan

Bakailao- mendrezka piperrakaz

Osagaiak:

Pikillo piperra, piper berdea, bakailaoa, ogia, berakatza eta oliba-olioa.

txigortuko dugu. Horren ostean, pikillo piperra eta piper berdea zaitu, frijitu eta ogi-puskaren gainean ipiniko dugu. Ondoren bakailaoa gehituko diogu, baita aurretik prestatutako berakatza ere. Azkenik, mokaduari azken ukitua emateko, oliba-olioa botako dugu denaren gainetik. Erraza, ezta? Ez zalantzarik izan, eta proba eza-zue etxean egiten, ez zaizue damutuko eta! Gainera, txakolin edo ardo zuri batez lagunduta badago, are gehiago gozatuko duzue mokadu horretaz, zin egin digute Txiberriko lagunek.

Ezin dugu ahaztu, aipatzekoa da eta, taberna hartzen duen eraikinaren atzeko aldean pilotan jolasteko dagoen frontoia. Edonork erreserba dezake gune hori, telefono dei bat eginez. Hala, kirola egin eta gero, egundoko lekua da Txiberri, frontoian pilotari kolpeka ibili ostean edonork suspertzeko moduko bokatak ere eskaintzen baitituzte bertan, 3,5 eurotik aurrera. Kirolzaleak ez direnek ere kanpoko terrazan patxadaz tragoxkaren bat edo beste hartzeko leku aproposa da edantokia. ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

*Elikagai
ekologikoak*

*Ekotzeak
eta banatzaileak*
★
*Etkez etxeko
zerbitzua*

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

